

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
ARRATE DIEZ

Serantes mendia (Bizkaia)

Abrako
gailurra

Serantes mendiko antenak egunero ikusten ohituta daude Ibaizabalen ertz bietako milaka lagun. Oraingoan ordea, behetik ikusi beharrean, haien ondo-ondotik ikus daitekeen paisaiatzat goatzeko parada izango dugu. 448 metro eskaseko garaiera izanik, Bizkaiko kostako bista ederrak ditu Serantesek. Nortasun handiko gailurra.

Serantesera igotzeko, Santurtziko Mamariga auzotik edo Zierbenako La Cuestatik has gaitezke ibiltzen. Santurtziko bidea hartu dugu oraingoan. Hara heltzeko, trenaren autobusa har daitezke Bilbotik, biak ere Abandoko geltokian. Autoz joanez gero, A-8an, Santurtziko porturako bidean, Mamariga auzorako irteera dago.

Vista Alegre kalean Serantesen tontorreraino eramango gaituen hormigoizko bidea hartuko dugu. Ondo adierazita dago une oro, eta ez dago galtzeko beldurrik.

50 metro ibilita, primeran ikusiko dugu Santurtziko portua. Bilbokoa, alegia. Itsasadarraren alde batean, Superportua, Santurtziko zentral termikoaren tximinia erraldoiak, hainbat solairutako etxe multzo ikaragarriak... Biztanle-dentsitatea eta kutsadura binomioa jaun eta jabe. Beste ibarrean berriz, Aree-

ta, Getxoko Kirol Portua, Neguri, Ereaga eta Arrigunagako hondartzak, Algortako portu zaharra, txaletak, eta Bizkaiko Zubia ikus daitezke, besteak beste. Kontrastea ikaragarria da oraindik ere alde bien artean. San-

Serantesen bateriak eraiki zituzten
AEBen eta Espainiaren arteko
gerra zela-eta, 1898an. Espainiar
militarrek, estatubatuar inbasioaren
beldurrez, Kantauriko kostaldeko
defentsak indartu nahi zituzten

turtziko portutik merkataritza-ontzi handia ari da irteten; Getxokotik, hainbat belaontzi, itsasoan egun pasa egitera.

Hiriko zaratatik aldentzen

Mamariga Serantesen magalean dago. Auzoak nortasun berezia du. Tradizioz arrantzalea izan bada ere, kontrastea erabatekoa da egun dau den metroko lanekin, esaterako.

Hala ere, zoragarria da Vista Alegreko etxaldea ikustea, nolabait gogora ekartzen baitigu arrantzale bizimodua.

Baina utz ditzagun oroitzapenak eta goazen mendian gora. Lehen aldapatxoak igota, berehala ahaztuko zaigu portuko zarata. Horren ordez, ganadua, ortuak eta zenbait baserri eder ikusiko ditugu bidean aurrera goazela. Metro batzuk gorago, umeen jolaserako zelai aproposetara helduko gara. Egurrezko mahaitxoak eta iturri bi. Dagoeneko tontorra ikusten da, baina oraindik aldapa eta bihurtune batzuk falta zaizkigu hara heltzeko.

Egun argiz Bizkaiko zati ederra ikus daiteke Serantesetik. Irudi honetan, Santurtziko portutzarra ageri da behe-behean, eta Getxoren dotorezia haren parean, Arriluzeko kai, Ereagako hondartza eta Kirol Portu eta guzti. Haraxeago, Uribe Kostako muino leunak, eta zerumugan, Bizkaiko bihotza estaltzen duten mendiak.





Ezkerrean, gotorlekuaren hondarrak. Santurtziko portua behatzeko leku egokia izanik, hainbat eraikin militar egin izan dira Serantes mendian. Eskuman, behia Abrari begira. Superportua ageri da lehen planoan, Getxoko labar ikusgarriak itsasadarraz bestaldean.

Aurrez ditugunak aldapa luzeenak dira gainera, baina esfortzu apur batekin berehala helduko gara behinola funtzio militarra izan zueneko gotorlekura. Bista ederra dago handik, bai alde batera, Meatzaldera, zein bestera, Abrara eta itsasadarrera.

Konturatu barik azken zatira heldu gara, Serantesen gailurreko dorrerako 80 metro besterik ez zaizkigu geratzen. Behin goian, dorretzara, antenak eta begiratoki handia aurkituko ditugu. Tontorretik bista

paregabea dugu: Getxoko Galea muturra, itsasoa, Jata, Sollube, Durangaldeko mendiak... Baina baita ere, askoz hurbilago, Superportua, zentral termikoa eta beste hainbat “istripu”. Hemendik Bilbo Handi osoa ikus dezakegu, Handia izanagatik.

Eraikin militarrik

Bilboko portua –alegia, Santurtziko– behatzeko gune ezin hobea da Serantes. Horregatik defentsarako

eraikin militarrik egin zituzten bertan. Felipe V.a erregearen garaian, Espainiako Ondorengotza-gerratean, hiru gotorleku eraiki zituzten, bakoitzak lau kanoi zituela. Gotorleku haiek munizioa gorde zein ingurua babesteko erabiltzen zituzten. Handik 160 urtera, 1875ean, Serantes tontorreko dorrea eraiki zuten. Ondoren bateriak, AEBen eta Espainiaren arteko 1898ko gerran. Espainiar militarrek estatu-batuaren inbasioaren beldur zirela-

Zierbena, Serantesera igotzeko beste abiapuntua

Iparraldean itsasoa, mendebaldean Muskiz, hegoaldean Abanto-Zierbena eta ekialdean Santurtzirekin du muga Zierbena udalerrri txikiak. 1.300 biztanle eta 10,5 kilometro koadroko hedadura ditu.

Egun Bilboko portura begira antolatuta du bere jarduera, baina antzinatek itsasoko lanetan aritutako herria da, abeltzaintza eta nekazaritzarekin batera. Zierbenak, Abantorekin batera, izugarriko demografia hazkundera izan zuen XIX. mende amaieran, inguruan zituzten meatzeak eraginda. Baina hazkunde hura 60ko hamarkadan eten zen, meatzaritzaren gainbe-

hera nabariaren kariatz. Gaur udal industrializatua da, portu ondoko lanen ustiapenera zuzenduta.


Abantoko San Pedro eta Santa Juliana eta Zierbenako San Roman kontzejuek udalerrri bakarra osatu zuten 1842an: Abanto-Zierbena. Hala ere, Zierbena 1878an hasi zen banatzeko lehen urratsak ematen. Azkenean, 1995ean lortu zuen independentzia. Abanto-Zierbenak, hala ere, izen horri eutsi zion Zierbena gabe ere. Arrazoia sinplea da: badago Espainian Abanto izena duen herria, eta estatuko legediak debekatu egiten du udalerrri bik izen bera edukitzea.

Zierbenakoak “galipo” izengoitiaz ere ezagutzen dira, hori da-eta arrantzaleek erabiltzen zuten saskiaren izena. Saski horretan eguneko janaria, itsasorako jantziak eta eguna amaitzean zegozkien arrainak zeramatzen, besteak beste.





Ezkerreko argazkian, Serantes mendia Getxotik ikusita. Ezkerraldekoentzat ez ezik, Uribe Kostako biztanle askorentzat ere eguneroko paisaiaren ezinbesteko zati bihurtu da Serantes. Eskuman, Abra eta Galea lurmuturra, Getxon.



Erromeria Serantesen

Urtero, Pazko astelehenean, Korrites erromeria ospatzen da. XIX. mende hasieratik dator ohitura. Erromeriaren izenak ogiz egindako eta arrautza egosiz eta txorizoz betetako opil borobilean dauka jatorria. Opiltxoa oihalez egindako poltsan sartuta, inguru-

koak Serantes mendira igo ohi ziren askaltzera. Hango zelaietan dantza eta jolas egin ostean, iluntzean Mamarigara joaten ziren, jaia bertan jarraitzeko. Oraindik ere, jende andana biltzen da egun horretan festa ospatzeko.

Jateko:

Maisu jatetxea. Mamariga kalea 137, Santurtzi. Tfnoa.: 94-483 78 80.
El Marinero erretegia. Zierbenako portua. Tfnoa.: 94-636 50 58.

ko indartu zituzten Kantauriko kostaldeko defentsak. Kanoirik ez dago egun, baina haien oroimenez-edo *Las Baterias* ez-izena eman zaio eremu honi.

Gotorlekua

1880an dorrea eraiki zuten, gotorlektatik 500 metrora. Zaintzako dorre modura erabiltzen zen. Gotorlekuak, bestetik, 6.800 metro koadroko azalera zuen. Forma pentagonala zuen, eta lau pabilioi. Bat armadarentzat, beste bat ofizial eta gobernadorearentzat, eta gainerako biak tresneria gordetzeko. Gaur egun, gerlaririk ez, herritar xeheak igotzen dira paraje hauetaraino. Eguneroko bizimodua ateratzea dute horiek borroka bakarra, eta ez da txikia. ■

20, 30, 35, 40... eta 50 urtera arteko hipotekak. Tasazio-balioaren %100eraino eta abalik gabe.

zeure erara
bbk
hipotekak

etxetik botako zaituzte